



BARREN

TOKIKOM



# Pediatren gabezia



20 urtetan zehar, gustura dauden 38.000 paziente baino gehiago.

Letra txirik gabeko aurrekontuak.

**INFORMA ZAITEZI**

**943 36 63 77**

Lasarte - Oria  
Ola Kalea, 10

Tolosa  
San Frantzisko, 39

Elgoibar  
San Bartolome, 22



ANDER IZAGIRRE



*“Plazera izan da idatzi hauek zuekin, eta bereziki zurekin, Inma, konpartitu izana”*

**H**iru urte eta erdi igaro dira Zozoak Beleari atalean idazten hasi ginenetik. Denbora horretan zehar, natura eta ingurumenarekin loturiko hainbat gai jorratu ditugu, eta gutxi batzuek behintzat, gustura irakurri dituzue gure idatziak. Zuei bereziki, agur esatera gatozela esan nahi dizuegu. Hiru urte eta erdi ez dira gutxi, eta etapa honekin bukatzeko garaia iritsi zaigula eta aurpegi berriak ikusteko garaia dela uste dugu.

Hala ere, agur esan aurretik, Sallobente bailaran bizi den lagun baten kezka konpartitu nahi dut zuekin. Izan ere, orain dela gutxi aipatu zidan baserritar askok erre kara botatzen dituztela hildako animaliak. Gainera, azpimarratu zidan uste dutela guztiz naturala dela eta inongo kalterik sortzen ez duten ustea dutela. Egia esan, ez nekien ohitura hau horren arrunta

zenik, baina gogoan daukat, orain dela urte batzuk lagun batzuekin Sallobenteko errekan gora gindoazela, hildako ardi bat aurkitu genuela bertan. Zer ondorio izan ditzakete ekintza hauek, Inma? Ura kutsatu, uraren kalitatea jaitsi, erre kako animalia batzuk hil...? Badaukazu azalpenik ematerik?

Orain bai, agurtzeko garaia da. Baina agur esatearekin batera, gauza bat nabarmendu nahiko nuke, Inma. Atal honek gure artean sortu duen harremana. Elkar ez ezagutzetik gaur egun dugun tratua izatera eraman gaitu. Hemendik aurrera ez diogu atal honetan elkarri idatziko, baina jarraituko dugu elkarren berri izaten! Ah, eta zuk segi mendian aurkitzen dituzun nire intereseko animalitxo horien argazkiak bidaltzen!

Plazera izan da idatzi hauek zuekin, irakurleokin, eta bereziki zurekin konpartitu izana, Inma!



INMA MUGERTZA

*“Eskerrak ingurumenaz kezkatzen diren guztiei eta ingurua begirunez tratatzen dutenei”*

**K**aixo, Ander! Bai, hiru urte igaro dira, eta izugarri azkar gainera. Opari bat da norberaren esperientzia eta iritziak plazaratu ahal izatea. Baina opari handiagoa, “gutxi batzuek behintzat” irakurri gaituztela jakitzea. Ez dakit zu, baina ni harro nago gure harri-koskorra jarri dugulako. Eskerrak bai gure jarraitzaileei, ingurumenaz kezkatzen diren guztiei eta, oro har, gure ingurua begirunez tratatzen dutenei. Plazera izan da, baina kezka eta lana ere bai, ez baita erraza norberak buruan duenari testua jartzea.

Gai interesgarria atera duzu, Ander. Hildako animaliak erreketan uztea eta leizezuloetara botatzea ohiko jarduera da oraindik, harrigarria bada ere! Baina jarduera horrek sekulako kaltea eragiten dio urari, ibaietakoari edo lurrazpikoari, kasuan-kasuan. Ustelketa-prozesua aurrera doala, ehunak likuatu egiten

dira. Horrek kirats izugarria igortzen du. Prozesu biologikoaz gain, kimikoa ere bada. Hortaz, aldaketa kimikoak eragiten ditu (karbonoa eta nitrogenoa gehitzen dira, pHa igo...) eta uraren kalitatea eskastu egiten da. Horrek eragin negatibo zuzena dauka bertan bizi diren animalia eta landareengan, noski!, baina baita biztanleengan ere. Jakina da gatazka armatuetan, etsaiaren indarrak ahultzeko, edateko ur-putzuak kutsatzen dituztela gorpuak bertara botaz. Beraz, ez da naturala, ez da komenigarria eta legez kanpo ere badago. Ura zaindu dezagun!

Noski jarraituko dugula elkarren berri izaten, Ander! Plazera izan da zu ezagutzea, zurekin idaztea eta zuri animalitxoaren argazkiak bidaltzea! *Portzierto*, ez utzi narrastiei buruzko jakintza suspertzen (naturalia), sekulako altxorra!



## Hiletak

sikari emana baitzeukan gaztetatik azken egunera arte. Ederra izan zen benetan hileta, baina jende gutxi zegoela iruditu zitzaidan barruan zein kanpoan, berak hainbat urtetan eta herri-tan sortu zuen alaitasunarekin alderatuz behintzat.

Bigarren lagunaren hiletan (Elgoibarkoan) ere lagun gutxi sumatu nuen.

Bi egoera hauek idaztera bultzatu naute, eta horrela, idatzi hau BARRE-Nera eta *Aiurrira* bidaltzeko asmoa hartu dut, adoretuta.

Azken urteetan gizartean bilakaera laiko bat ematen ari dela ikusten dut: bataio, jaunartze, ezkontza, eta abarretan, baina hiletan momentuan Eli-

zara joaten jarraitzen dela. Baliteke familiarian heriotza bat ematen denean, beste nolabaiteko erritual bat antolatzek zama astunegia sortzea horren une tristeetan. Baina heriotzak tabua izaten jarraitzen du, zaila da norbere eta maite ditugunen heriotzak aurrez irudikatzea.

Ba horretara animatu nahi zaitut irakurle, zure maiteekin hitz egitera nola nahiko zenukeen izatea zure azken agurra, zerbait ziurra baldin badago, denok hilko garela baita.

Eta herrietako agintariei zer esan... badela ordua herri bakoitzean gune egoki bat prestatzeko herritarrei azken agurra ematea errazteko.

Denok merezi dugulako gure bizitzarekin bat egiten duen agurra.

*“Bada ordua herri bakoitzean gune egoki bat prestatzeko herritarrei azken agurra ematea errazteko”*



BARREN

ARGITARATZAILEA:



ELGOIBARKO IZARRA  
Eusko Legeburuaren Argitaletxea

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR  
943 744 112  
Publizitatea: 943 743 704  
[barren.publi@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.eus)  
[barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)  
[www.barren.eus](http://www.barren.eus)

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarriak lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia, Zofoak Beleari eta eskutitzak ataletan adierazitako erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA** Zalaoa Anaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Garazi Ayesta, Nora Hadi, Ibon Serrano, Arkaitz Iureta, Nora Kortaberria, Nerea Gurruxaga, Andoitz Agirregomezkorta, Abel Arriaga, Inma Mugertza, Ander Izagirre, Ana Alberdi, Eneko Iturbe, Eire Vila, Mikel Olaizola, Manu Sanchez, Unai Villena, Iosu Juaristi, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen Ansoa, Eider Iriondo, Edurne Izagirre, Alain Ulazia, Paula Heras, Eneiz Ezenarro, Jesus Jimenez, Mikel Artola, Iñaki Odriozola, Ander Mujika, Ander Soraluze. **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.860 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 **ISSN** 1138-1855

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:



Gipuzkoako Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak  
(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

### ► KATUEDER ELKARTEA SORTZEN

Elgoibarren bizi diren kaleko katuen egoeraz arduratutako pertsona talde bat gara. Katuei laguntzeko elkarteak sortzeko asmoa dugu, eta kalean bizi diren katuei C.E.S prozedura ezartzeko eskatu. C.E.S prozeduraren sigleak (*Captura-Esterilización-Suelta*, ingelesezko *TNR Trap -Neuter-Return*) harrapatu-esterilizatu eta askatu esan nahi dute euskaraz. Kolonia bateko katu guztiak edo gehienak harrapatu, antzutu eta belarrarian egiten zaien mozketak txiki baten bidez identifikatu ondoren euren lekuan askatzea eskatzen dugu. C.E.S metodo bat baino askoz gehiago da. Katu guztiak errotatzen dira eta datu-base batean erregistratzen dira, bakarkako jarraipena egiteko. Elikagaiz eta ur garbiz hornitzen dira egunero eta aterpe bero eta lehorrak eraikitzen dira, eguraldi kaxkarretik babesteko eta arnas infekzioak saihesten laguntzeko.

Beharrezkoa bada, albaitarien tratamenduak errazten zaizkie, parasitoak

hiltzen zaizkie eta behar dituzten botikak ematen zaizkie. Katu gazteak eta lagunarteko katu helduak adopzioan eskaintzen dira.

Dibulgazio-zereginak eta heziketa ere oso garrantzitsuak dira. Elkartetik arduratuko gara auzotarrek egiten ari garen lanaren berri izan dezaten. Baita, katuen antzuteak, maskotak zaintzearen ardurak eta katu-kolonien kudeaketa zuzenak haien zaindari izango dituen abantailak ere azpimarratuko dizkiegu: kaleko katuen bizi-kalitatea hobetzea, kolonia bakoitzeko kideen kontrola, utzitako katuen eta gaixotzen diren animalien erreskatea, plaga desiraezinen kontrola (karraskariak, intsektuak,...), katuen arteko borroka amaitzea, pixarekin eta gorozkiekin markaketaren inhibizioa.

C.E.S metodoarekin lotutako lan guztia boluntarioek egiten dute. C.E.S prozesua ez da amaitzen behin katuak antzutzen eta askatzen direnean. Beharrezkoa da koloniaren egoera orokorra egunero kontrolatzea, baita ere C.E.S

metodoa era jarraian aplikatzea, agertzen diren katu berriak kontrolatzeko.

Boluntario izan nahi duenak edo nolabait elkarteari lagundu nahi dionak gurekin harremanetan jartzeko bi bide hauek ditu: [katueder@gmail.com](mailto:katueder@gmail.com) edo [www.facebook.com/katueder](http://www.facebook.com/katueder) webgunean.

**Katueder**

<p>barrena 11. EIBAR</p> <p><b>garajesGarcía.com</b></p> <p>KUPOI HONEKIN</p> <p><b>%10eko</b></p> <p><b>deskontua</b></p> <p><b>filtroetan</b></p> <p><b>BOSCH</b> Service Cat Service</p> <p><b>EMERSON</b> ARAGON Barnetxeak aldiak</p> <p><a href="http://www.garajesgarcia.com">www.garajesgarcia.com</a> <a href="mailto:g.garcia@garajesgarcia.com">g.garcia@garajesgarcia.com</a></p> <p>Telefonoa: <b>943 820 697</b> Lanegia: <b>943 202 214</b> <b>943 127 271</b></p>	<p><b>14.500€</b></p>  <p><b>FORD GRAND C-MAX 2.0 TDCI TITANIUM</b> Motorea: 2.0 cm3 16V Diesel Kilometroak: 80.000 Egoera: erabilia</p>	<p><b>15.500€</b></p>  <p><b>VW GOLF 1.6 TDI CR 85K BUSINESS</b> Motorea: 1.6 cm3 16V Diesel Kilometroak: 90.000 Egoera: erabilia</p>	<p><b>8.500€</b></p>  <p><b>PEUGEOT 207 + 1.4 HDi 68 CV FAP</b> Motorea: 1.4 cm3 16V Diesel Kilometroak: 80.000 Egoera: erabilia</p>
	<p><b>7.000€</b></p>  <p><b>HONDA ACCORD 2.2 iCT Di Diesel</b> Motorea: 2.2 cm3 16V Diesel Kilometroak: 250.000 Egoera: erabilia</p>	<p><b>11.500€</b></p>  <p><b>CITROEN DS 3 1.6 Vti Special Edition 120</b> Motorea: 1.6 cm3 VTI Gasolina Kilometroak: 115.000 Egoera: erabilia</p>	<p><b>25.500€</b></p>  <p><b>HONDA CRV ELEGANCE</b> Motorea: 2.2 cm3 1.6CTDI Diesel Kilometroak: 100.000 Egoera: erabilia</p>

## Lan mundua euskalduntzeko eragile guztien parte-hartzea beharrezkoa dela nabarmendu dute IMHren Hizkelan jardunaldietan



**E**npresa eta erakundeentzat baliagarriak izan daitezkeen euskarazko zerbitzu eta esperientziak ezagutarazteko jardunaldiak egin zituzten eguaztenean Elgoibarren. 2006. urtean hasi zen Elgoibarko Makina Erremintaren Institutua zeregin horretan, estreinakoz 30+10 mintegia antolatu zutenean. Hamar urtez antolatu izan du mintegi hori, iaz arte. Euskara eta lan mundua uztartzeko helburuarekin hasi ziren lanean, eta helburu horrekin berarekin antolatu dituzte aurten Hizkelan jardunaldiak, Laneki elkartearekin elkarlanean. Eragile askok parte hartu zuten jardunaldietan eta askotariko gaiak landu zituzten; besteak beste, Araba, Bizkai eta Gipuzkoan euskararen erabilera sustatzen diharduten enpresa-sare, elkarte eta ekimenen azken berritasunen berri jaso zuten bertaratutakoek eta bukaeran IMHren bi lantegiak eta museoa bisitatu zituzten IMHren bueltako irudi-paisaia eta lan estrategiak ezagutzeko. Ideia asko nabarmendu zituzten jardunaldietan, eta eragile guztiak bat etorri ziren esatean lan mundua euskalduntzeko behar-beharrezkoa dela eragile guztien parte-hartzea.

## Etxez etxeko laguntza zerbitzurako aurrekontua handitu eta eskaintza zabalduko du Elgoibarko Udalak

Etxez etxeko zerbitzuaren udal araudia egokitu du Udalak, elgoibartarren profil berriei eta haien beharrei egokitzeko, eta egokitzapen horren ondorioz Udalak zerbitzua ordaintzera bideratutako diru-kopurua handitu du. Elgoibarren Bizitzen Elkar-tea arduratzen da etxez etxeko laguntza zerbitzuaz, eta helburua hau da: mendekotasun egoeran daudenei laguntza euren bizilekuan bertan ematea, era horretan isolamendu egoerak saihesteko. Erabiltzaileak zerbitzuaren kostuaren ehuneko bat ordaintzen du, beti ere bere gaitasun ekonomikoaren arabera, eta gainerakoa Udalak jartzen du. Diru-ekarpena handituta, datorren urtetik aurrera erabiltzaileak 14 euro ordaindu beharko ditu gehienez. "Aurreikusitako gastuak gaudituta ere, gure konpromisoa da pertsona bakar bat ere ez gelditzea zerbitzu hori jaso gabe", esan du Blanca Larrañaga Ongizate Saileko zinegotziak.

## Jardunaldi mikologikoak egingo dira Elgoibarren urriaren 21etik 24ra

Karakate Mikologia Elkarteak antolatuta jardunaldi mikologikoak egingo dira Elgoibarren, udazkene-ro bezala. Gaur hasiko dute egitaraua, tabernaz taberna egingo duten perretxiko-pintxo dastaketarekin. Hilaren 23rako, berriz, perretxiko erakusketa antolatu dute Kultur Etxeko sotoan. 11:00etan zabalduko dute erakusketa, eta astelehenan, hilak 24an, Elgoibarko eskola umeei zabalduko diete erakusketa, urtero egin ohi duten legez. Azaroaren 12rako, berriz, mendi-irteera antolatu dute Morkaikorekin elkarlanean, perretxikoak ezagutzeko.

## Ainara Ladron absolbitu egin dute

2007ko urtarrilean A8 autobidea mozteagatik epaitutako bost gazteak absolbitu egin zituzten eguaztenean, tartean Ainara Ladron elgoibartarra. Akusazioak froga nahikorik aurkeztu ez izanagatik absolbitu ditu bost lagunak Donostiako epaitegi batek, 2007ko urtarrilean Zarautzen A8 autobidea beraiek moztu zutela frogatutzat eman arren. 21 hilabeteko kartzela zigor eskaera bertan behera gelditu da beraz, baina momentuz, fiskalak helegitea aurkezteko aukera daukalako oraindik. Sententziaren arabera, epaileak onartu ditu bost auzipetuen defentsen arrazoiak. Hau da, ezin dela frogatu ekimen hark desordena larririk eragin zuenik, ezta indarkeriarik erabili zuenik ere. Saioa Zerain, Ainara Ladron, Aritz Azkona, Naroa Ariznabarreta eta Asier Alberdiri 21 hilabeteko kartzela zigorra eskatu zien fiskaltzak martxoan egindako epaiketan.

## Sute batek kalte handiak eragin ditu Urazandi kaleko etxebizitza batean

Joan zen ostegunean gertatu zen. Urazandi kaleko 30. zenbakiko etxebizitza batean sutea piztu zen 18:00ak aldera eta suak kalte material handiak eragin zituen. Lau laguneko familia bat bizi zen etxean, tartean oso adin txikiko bi ume, baina zorionez, inor ez zen zauritu, nahiz eta anbulategira eraman behar izan zuten gutxienez haie-tako bat. Lerro hauek idazteko unean, senide baten etxean osatu hartua zuen familiak.



## Kaleratze egoeran daudenak babesteko protokoloa onartu du Elgoibarko Udalak

Etiket kaleratu dituztenak babestea eta kaleratzeko arriskuan daudenak patu bera izan dezaten saihestea –kaleratzeei aurrea hartzea, azken batean– du helburu nagusi protokolo horrek, eta halako egoera baten aurrean Elgoibarko Udalaren sail eta zerbitzu ezberdinek ahalik eta ondoen koordinatzeko pausoak zehazten dira bertan. Izan ere, gero eta gehiago dira oinarritzko beharrak ase ezin dituzten familiak gurean ere.

## Mari Carmen Agirre moja klaratarra hil da, 'Lizardi' poetaren arreba gazteena

Mari Carmen Agirre moja klaratarra hil zen martitzenean, 101 urterekin. 1915eko otsailaren 13an jaio zen Tolosan. 1942an sartu zen moja, eta hasierako urteak Portugaleteko klaratarren komentuan eman zituen. Azken 11 urteak Elgoibarren egin ditu, Santa Klarako komentuan. Hamalau anai-arrebetan gazteena zen Mari Carmen Agirre. Jose Maria Agirre, *Xabier Lizardi* goitizenaz ezagunagoa den idazle eta olerkariaren arreba zen.

## Mari Jose Ulaziarentzat da Gure Esku Dagoren otarra

Elgoibarko Gure Esku Dago zozkatutako otarrak badu irabazlea: Mari Jose Ulazia. Herriko ekoizle eta dendariak emandako produktuekin osatutako otarra jaso du Ulaziak. Hala, antolatzaileek eskerrak eman dizkiete produktuak eman dituzten guztiei, errifak saldu dituzten tabernariei eta baita errifak erosiz Gure Esku Dago mugimenduen aldeko ekarpena egin duten herritar guztiei ere. Lortutako dirua zertarako erabiliko duten aurrerago zehaztuko dutela aurreratu dute antolatzaileek, baina herri-galdeketa hotsak entzuten direla aurreratu dute.




## Otarrak salgai, Zuberoako ikastolei laguntzeko

Zuberoako ikastolei laguntzeko jakiz betetako otarrak jarri dituzte salgai, eta Elgoibarren, Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topagunea elkartean egin dezakezue eskaera, azaroaren 30a baino lehen ([elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus](mailto:elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus) / 943 741 626). Bi otar daude aukeran: 40 eurokoa (Ahüski) edo 52 eurokoa (Irtati).

## Onkologiari buruzko hitzaldia, MEKAn

Juan Serrano Gandia (Valentzia, Herrialde Katalanak, 1966) biokimikariak onkologia integrari buruzko hitzaldia eskainiko du urriaren 26an, MEKAn. Bi saio izango dira, baina goizekoa MEKA bertako ikasleentzat izango da bakarrik. Arratsaldeko hitzaldira, berriz, nahi duen orok joan ahal izango du (19:00).



2006. urtean, Mendaroko Talde Independentetaren legealdian, lortu zuen Mendarok herriko anbulategian “pediatria zerbitzua” izatea, “hamaika batzar egin eta beste horrenbeste traba gainditu ostean”. Sorreratik bertatik zerbitzu mugatua zen oso, “eskasa”, Esti Gonzalez orduan alkate zenak berak aitortu bezala. Izan ere, astean behin pasatzen zuten Elgoibarko pediatrik kontsulta — Maria Jesus Lloret pediatrik—, Elgoibarko bere eginbeharrak bukatu ostean. Ume osasuntsuei aldian behingo kontrolak egitera mugatzen zen, baina, sendagilea; beraz, osasun arazoren bat zuten jaioberrien zein 14 urtez azpiko gainerako guztien gurasoek Elgoibarko anbulategira joaten jarraitu zuten. Horrela izan da oraintsu arte, baina orain, “pediatren lan-karga banaketan zegoen asimetria bat zuzentzeko” egin duten “berregituraketa” baten ondorioz, zerbitzu hori “etenda” egon da hainbat hilabetez. Horren gaineko azalpenak eskatzeko, Juanma Sanzo Gipuzkoa Mendebaldeko Zuzendari Medikoarekin eta Jesus Alustiza Debarreneko Erakunde Sanitario Integratuko pediatria buruarekin bildu gara.

- AINARA ARGOITIA-

## “Helburua da aldian behingo osasun azterketak Mendaroko anbulategian bertan egitea herriko umeei”

### ▶ JESUS ALUSTIZA ETA JUANMA SANZO

DEBABARRENEKO OSI-KO PEDIATRIA BURUA ETA GIPUZKOA MENDEBALDEKO MEDIKU ZUZENDARIA

♦ Elgoibarren 14 urtez azpiko 1.815 ume daude eta Mendaron, 427 (2006an baino 182 gehiago). Egoera antzekoan, Bergaran (2.024 ume), adibidez, baliabide pertsonal handiagoa dutela diote hainbat herritarrek.

**J.S.:** Baina gure unitatean, Elgoibarkoan, hiru pediatria daude, eta Bergarakoan, bi. Komeni da mapa azaltzea. Begira, Debarreneko Erakunde Sanitario Integratuan (OSI), Mendaroko ospitalaz gain bost unitate daude: Eibarko bi anbulategiak, Ermukoa, Elgoibarkoa eta Deba-Mutrikukoa. Eta Elgoibarko unitateak hiru herri hartzen ditu kontuan: Elgoibar, Sorluze eta Mendaro, eta unitate horretan hiru pediatria daude, eta Bergarakoan, erreferentziazkotzat hartu duzun horretan, aldiz, bi.

♦ Zenbatekoa da pediatria bakoitzak artatu beharreko haur kopurua? Zenbatekoa da ratio hori gurean?

**J.S.:** Elgoibarko unitateari dagozkion 14 urtez azpikoen kopurua 2.695ekoa da – Abuztura arteko datuak dira. Osasun-txar-



Jesus Alustiza eta Juanma Sanzo.

tel individual kopuruaren arabera da zenbaketa—. Beraz, pediatriko haur ko-

purua 890ekoa da Elgoibarko unitatean, eta hori oso ratio ona da, Euskadiko da-



tuekin alderatuz gero. Okerrago egon izan gara. Egia da hemen arazo bat dugula: populazioaren dispersioa. Baina datu horiekin beste pediatra bat jartzea ez legoke justifikatuta. Ezingo genuke. Mendaroko kopuruak ez du ematen pediatra baterako beste. Kontuan izan pediatra oso baliabide pertsonal kualifikatua dela. 10-12 urteko prestakuntza egin behar da pediatra izateko, eta jakina, oso pediatra gutxi daude.

**J.A.:** Ratioak zenbatekoa izan behar duen galdetzen duzu, baina ez dago ratio jakin bat, ez dago matematika-erregelarik; hala ere, pediatriko 800-1.000 umeko ratioa egokitzat ematen dugu. Profesionalen elkarteek pediatriko 800 umeko kopurua aholkatzen dute gutxi gora-behera. Pozik gaude daukagun ratio horrekin. Esan behar da, gainera, berriki Elgoibarko unitaterako beste pediatra bat lortu dugula –hirugarrena, Soroluzekoa– eta Eibarkorako beste bat, eta unitateen artean elkarlana badagoela.

**J.S.:** Orain pediatra buru bat ere badugu, gainera, OSI guztirako: Jesus Alustiza. Mendaroko Ospitaleko eta OSiko lehen mailako arretako bost unitateetako beharrei erantzuten die. Ikuspegi orokor hori izatea funtsezkoa da.

♦ **Bi pediatra dituzte Bergaran, eta pediatra bakoitzak erizain bana. Elgoibarraren, aldiz, erizain bakarra dago. Pediatra bakoitzak bere erizaina balu Euskal Herriko pediatren elkarteak eskatu izan duen moduan, ez al litzateke lan-zama arinduko?**

**J.S.:** Ez, begira. Erizain-orduak hartu behar dituzu kontuan. Elgoibarko unitatean, Elgoibarko, Soroluzeko eta Mendaroko erizain-talde bat daukagu, pediatriko lanak ere egiten dituenak. Erizainak polibalentek dira, eta familia-medikuari laguntzen ibiltzen diren Mendaroko eta Soroluzeko erizainek ordu batzuk gorde behar izaten dituzte euren agendetan, pediatriarako.

♦ **Dagoen gabeziarekin Mendarorako pediatra bat eskatzea luxua dela diozue, baina gutxienez orain arte egon den zerbitzua berriro jartzea eskatzea**

**horrenbestera al da kontuan hartuta 2006tik hona 14 urtez azpikoen kopurua ia bikoiztu egin dela?**

**J.A.:** Ez, ez da, eta hor azalpen bat eman nahiko genuke lehendabizi. Esan dezagun zerbitzu hori ez dela eten, mol-datu baizik. Egia da azkeneko hilabeteetan Elgoibarko pediatra ez dela Mendaroko anbulategira joan, baina esan dezagun agenda kontuengatik izan dela gehiago. Kontua da ikusten gurela Elgoibarko bi pediatren lan banaketan desoreka handia gurela. Irati Bizkarra —Mendaroko anbulategira osasuntsu dauden umeen kontrolak egitera joaten zena— lanez gainezka geneukan, eta Monica Arcos, beste pediatra, askoz libreago. Orduan, baliabideak optimizatze aldera eta arreta hobea ziurtatze aldera, Iratiren kupoa ixtea erabaki genuen eta une hartatik aurrera jaiotzen ziren haurrak Monicari sartzea. Eta gertatu da hori egin genuenetik —duela ia hiru urte— Mendaroko agenda izugarri murriztu zaiola Iratiri eta horrek ekarri duela Mendarora “joan beharrik ez izatea”. Izan ere, ulertuko duzun moduan, ume bat edo bigatik bakarrik ezin dugu pediatra Elgoibartik Mendarora mugiarazi, batetik luxu bat litzatekeelako, eta bestetik, zeharka, Elgoibarko zerbitzua eskatea leharkeelako. Beraz, zerbitzua ez da eten, baina bai, azken hilabeteetan ez da Mendarora joan.

*“Ez dago ratio jakin bat, baina pediatriko 800-1.000 umeko ratioa egokitzat ematen dugu”*

♦ **Ados, baina Mendarora joaten zen pediatraren kupoa itxita, mendaroarren zerbitzu bat herrian jasotzeko eskubidea ukatzen ari zataizkie, ala?**

**J.A.:** Bai, beharbada neurri batean, bai,

baina konpromisoa hartu dugu hori lehen-gora ekartzeko, kupoekin geneukan arazoak zuzendu ditugulako eta orain ez daukagulako lehenengo desorekarik. Beraz, orain konpromisoa hartu dugu Mendaroko haur guztiei tartean behin egiten zaizkien osasun azterketak eta txerto-jartzeak Mendaroko anbulategian bertan egiteko. Mendaroko alkatearekin ere bildu ginen zuk deitu ostean, azalpenak emateko

♦ **Egokitu zaizun pediatra edozein dela?**

**J.A.:** Ez. Ia, orain arte Monicarekin dauden haurrak logikoena da Monicari lagatzea. Pertsonalki, Monicari egokitutako haurrak beste pediatrari pasatzea ez zait egokia iruditzen, besteak beste iruditzen zaidalako gurasoek eurek ere, gehien-goak behintzat, ez luketela nahiko, azken batean pediatra-guraso harreman hori hasita dagoelako eta erreferentziazko eta konfiantzazko medikua orain arte ezagutu duten hori izango delako haientzat. Beste unitate batzuetako esperientzia badugu. Aurrerantzean, baina, Mendaron jaiotzen diren haurrak Iratiren kupora batuko dira. Horren inguruan kontu bat zehaztu nahiko nuke: orain arte pediatratzat Monica izan duten gurasoek beste seme-alabaren bat izanez gero, guk pediatra bera esleituko genioke (Monica alegia), familiako pediatra bakarra izatea kontenplatu dugulako, baina halakoetan, guraso horri aukeran emango genioke pediatra bat edo bestea aukeratzea, beti ere kupoetan desoreka handirik sortzen ez den artean.

♦ **Baztertu duzue beraz Mendaroko ume guztiei ostegunetan herrira etorriko den pediatra esleitzea.**

**J.S.:** Aztertu ahal izango litzateke hori egitea, baina proposatzen duzun mugimendu horiek egitea oso konplikatu da. Jendeak pediatra ezaguna izatea lehenesten du normalean. Hala ere, norbaitek nahiko balu pediatra aldatzea jakin dezala eskaria egin dezakeela.

♦ **Eta bitartean zer?**

**J.A.:** Bada bitartean gertatuko da, bai, Mendaroko haur batzuk zerbitzu hori herrian jaso ahalko dutela eta beste batzuk

ez, baina esan dizut helburua zein den. 14 urtez beherako haurrei tartean behin egiten zaizkien osasun azterketa gehienak lehenengo urtebetean pilatzen dira, eta beraz, aldi batez halakoak gerta daitezke, bai.

♦ **Mendaroko ambulategiko pediatria zerbitzua sortzez da mugatua. Astean bi orduz joaten da pediatria, ostegunetan, 13:00etatik 15:00etara. Bistan da ordutegia ez dela haur txikientzako onena, eta horri gehitu atzerapenak ohikoak izaten direla, Elgoibarko lanak bukatutakoan etortzen delako pediatria. Orain, agenda handituko zaiola aurreikusita, nola pentsatzen duzue aurre egitea sor daitezkeen arazoei?**

**J.S.:** Beharrezkoa balitz Mendaroko ambulategiko pediatria orduak gehitzea hartutako konpromisoa bermatzeko, gehituko genituzke, eta era berean, Elgoibarko zerbitzua indartu beharko bagenu ere, pentsatuko genuke nola egin, baina hori eskariaren arabera aztertuko genuke. Mendarora pediatria joan ahal izateko baldintza bat jartzen dugu, ba-

karra: agenda egotea, hau da, gutxieneko kopuru bat betetzea, denbora asko galtzen dugulako bestela. Pediatria eskasia handia da, eta dauzkagun baliabideak findu edo doitu behar ditugu, ratio horri, ratio on horri, eusteko eta zerbitzua hobetzeko.

♦ **Behar izanez gero, ostegunetan Elgoibarko zerbitzua indartzeko prest zaudetela diozue. Baina hain justu baldin badago dena, zer aukera duzue?**

**J.S.:** Aztertu beharko genuke nola egin, baina beharbada jokatu beharko genuke Soraluzeko pediatriarekin. Asmatuko genuke nola egin.

♦ **Guraso batek zioen mendaroarren Elgoibarrera joateko duten ohituraz baliatzen zaretela Mendaroko ambulategiko zerbitzua ez indartzeko. Elgetako bati pentsaezina zaiola haur jaioberriarekin Bergarara jaistea pediatriarengana.**

**J.S.:** Bai, hori egia da, baina egia da Elgeta ere aparterago dagoela Bergaratik Mendaro Elgoibartik baino. Baina kontuz, eskubidea bermatuta dute bietan. Ni Donostian bizi naizen lekutik,

adibidez, denbora gehiago behar dut eta distantzia handiagoa egin behar dut ambulategira nahiz ospitalera joateko mendaroarren egin behar dutena baino. Horretan sartzea, beraz, arriskutsua ere bada.

♦ **Haur osasuntsuentzako kontrolak bakarrik egiten ditu berez pediatriak ostegunetako Mendaroko kontsulta horretan, baina demagun bezperan edo egun berean sukar handia duela umeak. Ezingo luke pediatriak Mendaron ikusi?**

**J.A.:** Haur osasuntsuentzako kontroletarako da berez zerbitzua, kontrol horiek aurrez programatu daitezkeelako, eta esan bezala, agenda lotuta etortzen delako pediatria Mendarora. Baina, bai, bai. Halakoetan egin dezakeguna da pediatria horren agendan tarte batzuk libre utzi luze gabe artatzea komeni den gaixoentzat. Hori bai, beti deitu egin beharko litzateke aurrez eta txanda eskatu. Ezin dena da besterik gabe ambulategira agertu, pediatria hori agenda jakin batekin datorrelako eta ezingo lukeelako bestela bere lana ondo bete.

## PEDIATRARIK EZ ELGOIBARKO ANBULATEGIKO LARRIALDI ZERBITZUAN

♦ **Herritarrak kexu dira 15:00etatik atzera ambulategian pediatriarik ez dagoelako. Zer daukazue esateko?**

**J.S.:** Pediatria-larrialdietarako eskema beste bat dela. Batetik, pediatriak daude euren kontsultetan, eta gero Etengabeko Arreta Guneak (PAC) daude; hiru Debabarrean: Eibarren, Elgoibarren eta Ermuan. Etengabeko Arreta Guneetan 17:00etan sartzen dira lanera, eta hurrengo goizeko 8:00ak arte ematen dute zerbitzua— Elgoibarko kasuan, 17:00etatik 00:00etara. Gauerditik 8:00ak arte Eibarko ambulategira jo behar da—. Familia-medikuak izaten dira horietan; ez dira pediatriak, ez, baina familia-medikuntzan espezialduak diren neurrian

trebatuta daude haurrak artatzeko ere. Eta, gainera, mediku horrek ikusiko balu beharrezko ume hori pediatria batek ikustea ospitalera zuzenduko luke, han beti izango delako pediatria bat larrialdi zerbitzuan, eta bien artean hartu-eman zuzena dagoelako. Etengabeko Arreta Gune batean pediatria bat izatea larrialdietarako ezinezkoa da, besteak beste, egon ere ez daudelako guk nahi beste pediatria.

♦ **Gero eta gehiagori entzuten diegu 'zoaz zuzenean Mendaroko ospitalera'. Horrek zer eragin du hango larrialdi zerbitzuetan?**

**J.A.:** Bai, hori sare guztian gertatzen da, ez hemen bakarrik. Pediatriak gutxi gaude eta daukagun ordutegia

daukagu, normalean 15:00ak artekoa.


Eskema daukaguna da, eta berez, 17:00etatik aurrera, medikua behar izanez gero Etengabeko Arreta Gunea jo beharko genuke, zuzenean ospitalera joan ordez. Jendea ez da fio, ez, baina esan behar dugu PACetako familia-medikuek harreman zuzena dutela ospitalarekin. Teorian hori da jarraitu beharreko eskema, egia delako ospitaleko larrialdi zerbitzuen erabilera okerra egiten dugula — hamar kasutik bederatzi ez dira ospitaleratzten—, baina mezu hauekin oso kontuz ibili behar da. Logika erabiltzeko eskatuko nieke nik gurasoei, zentzuz jokatzeke.



## *Paula Astigarraga Arocena*

2016ko urriaren 12an hil zen, 96 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

***Zure indarra eta adorea  
gogoan dugun bitartean,  
beti izango zara  
gure artean.***



## *Lurdes Iriondo Gurrutxaga*

2016ko urriaren 7an hil zen, 77 urte zituela

***Izar disdiratsu bat joan da zerura.  
Ez zaitugu sekula ahaztuko, beti egongo zarelaکو gurekin.***



## *Jose Martin Barrenetxea Aranzamendi*

2016ko urriaren 10ean hil zen.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



I. URTEURRENA

## *Felisa Olazabal Garate*

2015eko urriaren 24an hil zen, 87 urte zituela.  
Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, domekan,  
urriak 23, 12:00etan, Mendaroko Garagatzarko elizan.  
Joango zaretenoi aldeз aurretik eskerrak.

***Zure irribarre goxoa eta maitasuna  
betirako izango dira gure artean.***



# ▶ AMELIA BARQUIN

HUHEZI-KO IRAKASLEA

‘Belo islamikoa eskolan’ izenburuko hitzaldia eskaini zuen asteartean Amelia Barquin HUHEZIko irakasleak Elgoibarren, *Elgoibarrren Elkar(-)bizi!* egitasmoaren barruan. Hijab-a edo zapia erabiltzea debekatzearen kontrakoa da bere diskurtsoa. “Zapiaren erabilera ere analizatu ahal dugu. Ez nuke zapiaren erabilera bultzatuko, beste janzkera batzuk bultzatuko ez nituen bezala, baina debekatzea ez zait zuzena iruditzen”, dio.

- AINARA ARGOTIA -

♦ Joan zen astean izan genuen Meryem Etxanizen kasuaren berri. Eskolara sartzea debekatu diote *nigab*-a erabiltzen duelako. Zer duzu esateko?

Neska adingabe horren kasua ezberdina dela tarteka komunikabideetan irten diren beste kasuengandik. *Nigaba* erabiltzen du [belaunetarainoko zapia, agerian begiak bakarrik lagatzen dituen], eta beraz, ezin da konparatu hijab-a [buruzapia] erabiltzen dutenekin. Harrituta nago komunikabideetan izan duen oihartzunarekin, nik dakidala kasu bakarra delako. Horregatik, gehiegizkoa iruditzen zait eman zaion oihartzuna, eztabaida hori ez dagoelako momentuan gizartean. Are, islamiar komunitateak berak jakinarazi du ez dutela inondik inora *nigab*-aren erabilera bultzatzen. Beraz, kezkarria da, arriskua dagoelako batzuen islamofobia elikatzeke eta kasu bakar hori baliatzeko batzuek komunitate islamiar osoaren inguruan ondorio orokorrak ateratzeko.

♦ Zergatik hartzen dute horrenbeste oihartzuna kasu batzuek?

Esan behar da gutxitan sortu direla arazoak, ez direlako asko eskolara zapiarekin joaten diren neska musulmanak. Gutxi dira eta gutxiri debekatu zaie esko-



## “Zapiaren erabilera debekatzea ez da estrategikoa, ez etikoa eta ez ezer”

lara zapiarekin joatea. Joan zen udaberrian ezagutu genuen kasu bat Gasteizen eta eskoletan luze eztabaidatu da haren inguruan. Azkenean Hezkuntza Sailak zirkular bat bidali du ikastetxeetara zapia erabiltzen duten neskei eskolara sartzea ez debekatzeko gomendatuz. Hezkuntza eskubidea lehenesten da, eta positiboa da hori. Gure neska-mutilen janzkeraren inguruko debatea badago egon eskole-

tan, eta luze eztabaida dezakegu, baina hortik pertsona bati eskolan sartzea debekatzera pauso handia dago; zalantzarria oso.

♦ Zalantzarria, hezkuntza eskubidea ukatzen ari zaiolako ume horri?

Bai, barne kontraesan bat dago, esaten duguna eta egiten duguna ez datozelako bat. Izan ere, pentsatzen badugu zapidun neska hori azpiratua dagoela,

menperatua nolabait, zergatik ari gara bigarrenz zigortzen hezkuntzarako esku-bidea ukatuz? Hezkuntzaren bidez emakume horren ahalmentzea lagundu beharrean ari gara da berriz azpiratzen.

♦ **‘Emakumeok askatasuna behar dugu nahi dugun bezala janzteko’. Benetan libre al gara, baina, nahi duguna janzteko? Prest al gaude esaten dugun hori betetzeko?**

Oso galdera ona. Behin eta berriz ari gara hori esaten, baina esatea egitea baino errazagoa da. Denoi gertatzen zaigu: ikusten ditugu janzkera batzuk desagokiak iruditzen zaizkigunak. Eta bada beste kontu bat: zeri esaten diogu aske izatea?. Denok hausnartu beharko genuke zer puntutaraino garen gure erabakien produktu ala jaso ditugun eraginen produktu. Errazago antzematen ditugu besteak jaso dituzten presioak geureak baino, gureak erabat naturalizatuta ditugulako. Zenbat emakumek esaten dute garbiagoa edo politagoa delako depilatzen direla eta depilatzea askatasunez erabakitzen dutela?. Egin ariketa: irten gaitezen egun batean kalera mini-gona bat jantzita eta depilatu gabe. Zer gertatuko litzateke? Eroso sentituko ginatke? Nik Feminismoaren tresnak erabiltzen ditut analisia hori egiteko.

♦ **Zergatik daukagu gure kulturen zein besteetan emakumeok beti exijentzia handiagoa janzteko orduan?**

Patriarkatuagatik. Gizarte guztietan, janzkerak edozein direla ere, emakumeen janzkerak sekula ez dira gizonenak bezain koherenteak ez tenperaturarekin ez mugikortasunarekin eta ezta erosotasunarekin ere. Guk inbertitu behar dugu denbora gehiago eta egin behar dugu ahalegin handiagoa gure gorputzak gizarateak espero bezala aurkezteko.

♦ **Zapia eramateagatik eskolara sartu ezin izan dutenak adingabeak izan dira askotan. Adin horretan gure gazteak ere libre al dira nahi dutena janzteko?**

Hori da. Nahi dugu gurasoengan eragin eta zigortzen dugu umea, baina nork jantzi du? Baina ez da hori kontua. Zen-

bat aldiz ikusi ditugu eskoletan gazteak korrika egiten, jolasten eta ia-ia ibiltzen ere lagatzen ez dioten erropekin? Batez ere nesken kasuan gertatzen da, gainera. Bartzuetan Gabonetako zuhaitzak ematen dute. “Eder” daude, bai, baina begiratuak izateko daude horrela jantzita. Beraz, analisia egitea oso ondo dago, baina hortik debekatzerara... debekua ez da ez estrategikoa, ez etikoa eta ez ezer.

*“Pentsatzen badugu zapidun neska hori azpiratua dagoela zergatik ari gara berriz zigortzen?”*

♦ **Analisia egiteko feminismoaren tresnak baliatzen dituzu. Zeintzuk?**

Patriarkatua zer den azaltzetik hasten naiz. Badakit astuna naizela, baina jende askok ez dauka horren kontzientziarik. Ez dira jabetzen zein motatako gizaratean bizi garen hemen, gure patriarkatu honetan zein mezu ezberdin jasotzen ditugun emakume eta gizonen. Denok egin behar dugu analisia, eta gero, behin analisia egiteko gaitasuna garatuta, bakoitzak egin dezala nahi duena. Baina, analisi hori egin ahal izateko, tresnak eskuratu behar ditugu, eta eskola oso leku aproposa da horretarako. Niri oso kezagarria iruditzen zaizkigu 20 urteko gazte askok ez jakitea zer den patriarkatua. Badakite zer den inperialismoa, kolonialismoa, kapitalismoa... baina gure gizaratearen antolatzeko beste modu horretaz, patriarkatuaz, ez dakite ezer.

♦ **Hezkuntzako eragileek badaukate nahikoa tresna hori zuzentzeko?**

Falta zaizkigu. Pausoak eman dira, baina une honetan irakasle bakoitzaren formazio eta kontzientziaren arabera egiten da lan; asko dugu egiteko. Kontzientzia feminista garatzeko tresnak behar ditugu.

♦ **Azalduguzu zer den patriarkatua.**

Labur-labur eta sinplifikatzeko arriskua neure eginda, esango dut gure gizaratearen antolakuntza eredu dela, zeinaren arabera gizonen lehentasuna duten emakumeen ginetik eta baita boterera iristeko aukera gehiago ere, haiei esleitzen zaizkien ezaugarri eta funtzioek beti dutelako balio handiagoa. Denok gara sistema horren parte, gainera, eta sistema hau mantentzeko erlijiosoen, politikarien, filosofoen, hezitzaileen... denek kolaboratu dute mendeetan zehar. Hori bai, kontziente izan behar dugu orain mezu horiek beste bide batzuetatik iristen zaizkigula. Filmeetan, bideo-jokoetan, komikietan... esaten digute nolakoak izan behar dugun, beti se-duzioaren eta plazeraren bidez. Oharkabean pasatzen zaizkigu mezuak. Zer gertatzen ari da, adibidez, Euskal Herriko jaietan? Bada, hemen mutil batzuek uste dutela apur bat edan ezker, edozertarako eskubidea dutela baimenik ere eskatu beharrik gabe. Eta berdintasun formalean hazitako gazteak dira; garbi dago, beraz, mezu horiek beste bide batzuetatik iritsi zaizkiela.

♦ **Integrazioa edo asimilazioa. Ez al zaigu lausoegi egiten bien arteko muga?**

Erabiltzen dugu integrazioa, baina gero kargu hartzen diegu euren jatorrizko herrialdean bezala janzten segitzen dutelako, adibidez. Baina kontuz! Integrazioak ez du esan nahi zure jatorrizko ezaugarriak ezabatu eta harrera gizarateko ezaugarriekin ordezkatu behar dituzunik. Horri asimilazioa deitzen zaio, eta nik uste dut askotan hori dela etorkinei konturatu gabe eskatzen ari gatzazkiena: ez integrazioa, baizik eta asimilazioa, alegia ez dadila nabaritu etorkinak direla. Oso exijenteak gara etorkinekin, baina aldi berean haien seme-alabak ikastetxe batzuetan kontzentratzen ditugu eta familia autoktono asko saiatzeko dira euren seme-alabek ez dezaten eskola etorkin horien seme-alabekin partekatu. Beraz, nola lortuko dugu haien integrazioa? Arazo hau aspaldi dago antzemanda eta neurriak jarri behar dira, bai ala bai, hori bideratzeko, okerrera egiten ari garelako.



## MANUEL AMARO Estructuras Amaro eraikuntza enpresako arduraduna

### “Elkarren ondoan dauden bi eraikin zahar batera berritzea izaten da aukera onena, eta gehienetan, bakarra”

Bulego berria irekiko du Estructuras Amaro enpresak Kalebarrren plazan, berak egin duen etxebizitza baten beheko solairuan, hain zuzen ere. Izan ere, horixe da bere lana, etxe zaharrak bota eta berriak egitea. Manuel Amarok kontatu ditu bere lanaren nondik norako guztiak. Gai hauetan interesa duten herriarren zalantzak argitzeko prest aurkituko duzue bulego berrian.

#### - Noiz hasi zinen eraikuntza lanetan?

1987an hasi nintzen. Obra txikiak egiten nituen hasieran, eta gerora hasi nintzen eraikinak goitik behera berritzen. Nire benetako erronka Sallobente bailarako Ermube baserria izan zen.

#### - Zein motatako lanak egiten dituzu?

Alde zaharreko eraikin zaharrak behera bota eta berriak egiten ditut (erabateko berrikuntza obrak), baserriak eraberritu eta enpresetan mantenu lanak egiten ditut.

#### - San Bartolome kalean hasi zinen etxebizitza berriak egiten. Nola hasi zinen lan horretan?

Nire lagun baten bidez hasi zen guztia: Iñigo Barrenetxea. Bere familiak eraikin zahar bat zeukan San Bartolome kalean eta hura berritzeko laguntza eskatu zidan. Zailtasunak zailtasun, familiako eraikin horren aldameneko eraikina eskuratu genuen, eta bi etxebizitza elkartuta sortu genuen San Bartolome kaleko 21. zenbakia. Oinarrizko bizigarritasun baldintzak betetzeko, kasu gehienetan ezinbestekoa izaten da elkarren ondoan dauden bi eraikin gutxienez batera berritzea. Lan horren ostean beste bi eraikin berritu nituen, eta etxe-jabeek diru kopuru jakin baten



*“Bilera asko egin behar izaten dira, baina akordioetara heltzea posible da”*

truke etxe zaharraren ordeaz, etxe berria eskuratu zuten.

#### - Nola hasten da eraikin bat goitik behera berritzearen prozesua?

Lehenik eta behin bizilagunekin hitz egin behar da, lehen lana adiskitze-ahaleginena da, bai bizilagunen eta baita etxe bereko familiartekoen artean. Bilera pila bat egin behar izaten ditut adiskiditze lanetan ezinbestekoa baita bizilagun guztiak eta etxe bereko senide guztiak ados egotea proiektu hau martxan jartzeko. Bilera asko egin

behar izaten dira, baina akordioetara heltzea posible da.

#### - Zein kostu dauka horrelako obra batek alde zaharrean etxebizitza duen etxe-jabe batentzat?

Ez dago prezio finko bat, izan ere, aspektu desberdinak hartu behar izaten dira kontuan. Ikusi behar da eraikina bera bakarrik berritu daitekeen, edo legeak eskatzen dituen hirigintza baldintzak betetzeko bi eraikin elkartu behar diren. Bi eraikin elkartuta espazio komunak banatu egiten dira, hau

da, eskailera, igogailua eta portala. Elkarren ondoan dauden bi eraikin batera berritzea izaten da egokiena, eta kasu gehienetan aukera bakarra. Ez bada horrela egiten, kasu askotan ezin da egin. Portalak eta igogailuak leku asko behar izaten du, orduan onena izaten da portal eta igogailu bakarrarekin bi etxebizitza egitea. Horrek, gainera, gastua ere merkatzen du.

#### - Zein kasutan da interesgarria horrelako obra bat?

Eraikina hutsik dagoen kasuetan edo etxe-jabeak etxebizitza zahar horri etekina atera nahi dion kasuetan, dela alokatzeko edo dela saltzeko. Beste kasu batzuetan, etxe-jabeak etxe berri batek eskaintzen dituen erosotasunak nahi izaten ditu.

#### - Zein onura izango ditu horrelako obra bati baietz esaten dion etxejabeak?

Alde zaharreko eraikin gehienak egurrezkoak dira, zahartuta daude, okertuta, eskailera oso aldapatsuak dituzte... Etxe-jabe asko ez dira etxe horietan bizi, arrazoi desberdinengatik, baina kasu askotan adineko jendea etxe horietatik joan behar izaten da, etxetik irten ezinda geratzen direlako. Pareko kalean etxe bat alokatu behar izaten dute askotan; igogailua duen etxe berri bat. Imajinatu pertsona horrek alokairuan ordaintzen duenarekin bere etxea berritzeko aukera izango balu! Ez al litzateke hobea izango? Nik ez daukat dudarik. Beste askorentzat etxe zahar horiek karga bat dira, saldu nahi dituzte, baina gaur egun apur bat gehiago ordainduta jendeak nahiago du etxe berria erostea. Hortaz, alokairuaren aukera geratzen da soilik. Etxe zahar hori berritzeak aukera pila bat emango dizkio etxe-jabeari. Saltzeko edo alokatzeko nahi badu etekin handiagoa lortuko du, eta bertan bizitzeko bada, erosotasunean irabaziko du.

#### - Nolakoak dira zuk egiten dituzun eraikinak?

Estetikoki kanpoaldetik itxura klasikoa izaten dute. Eraikuntza tradizionalen ohikoak diren materialak erabiltzen ditut. Baina barrukaldea etxe-jabearen neurrira egiten dut. Guk plano bat proposatzen diegu, baina nahi izanez gero, bakoitzak bere erara antolatu dezake etxearen barruko aldea. Hau da, berak esago dit sukaldeak non nahi duen, edo komun bat edo bi nahi dituen, edo logela bakarra edo bi txiki... Leihoak eta balkoiak errespe-

tatu behar dira, baina gainerakoan etxea norbere neurrira egituratzeko aukera ematen diet. Guk proposamena egiten diogu, eta hori aukeratu dezake edo berak diseinatu dezake bere gustuko etxebizitza.

#### - Besterik?

Eskerrak eman nahi dizkiet bezeroei eta baita hornitzaileei ere, obra hauetan guztietan izan duten jarreragatik, izan ere, horrelako obretan pazientzia handia behar izaten da akordioak lortzeko eta norberaren neurrira egokitutako etxebizitza egiteko.



## AZKEN BI ETXEBIZITZAK SALGAI

### 3 logela, 2 bainugela. 162.000€ (B.E.Z. barne)

San Bartolome kaleko bista.

Portala Kalebarren plazatik, Kultur Etxe parean.


Informazioa eta salmenta: 679 155 980 / 609 324 517



Zuen kezak, galderak edo txaloak bidaltzeko: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) - 943 744 112




**Z**izilion industriguneko lurzoruan zulo handi bat dago aspalditik: "Zizilion industrigunean, Día supermerkatuaren aurrean, zulo handi bat dago lurzoruan. Pare bat egunez seinaleztuta egon zen, baina berehala kendu zuten seinalea, eta konturatu gabe autoaren bi gurpil zulatu nituen. Aspalditik dago zulo hori han, beraz, lehenbailehen konpontzea eskatzen dut".



**H**odi batetik denetik irteten da Deba ibaira: "Santa Ana kaleko 16. zenbakiaren parean dagoen hodi batetik zikinkeria pila bat irteten da Deba ibaira. Konpresak, papela, plastikozko poltsak, olagarro ustelduak, likido txuri bat... Kiratsa jasanezina da. Hodi hori hondakinen kolektore barruan egon beharko litzateke. Ez da normala gaur egun horrenbeste zikinkeria irtetea hodi batetik ibaira.



**B**olatokiko parkean komunak behar dira: "Bolatokiko parkean putzu bat dago eta jende askok putzu horretan egiten du txiza. Garai batean bolatokiko komunak zabaldu zituzten, baina berehala itxi zituzten berriz. Iruditzen zaigu komunak hor egonda, txukundu eta jendeak erabiltzeko moduan jarri behar direla. Plaza inguru horretan ez dago komun publikorik, eta ondo etorriko lirateke".



**L**ekueder parkeko berdegunea oso polita dago: "Lekueder parkeko berdegunea oso polita dago, eta Udalarari txalo egin nahi nioke. Berde mantendu dute uda guztian, eta gune horri nolabaiteko alaitasuna eta freskura ematen dio. Herriko beste hainbat gunetan ere jarri beharko litzukete horrelako berdeguneak".

**M**intxetako aire libreko igerilekuen goiko aldeko berdegunea zergatik ez da egoten zabalik irailan?: Herritar batzuen arabera, aire libreko igerilekuak itxi arren, hango berdegunea toki aproposa da umeekin joateko, eta azken urteetan irailan ere giro ona egiten duela ikusita, hori zabalik mantentzea eskatu dute. Kirol Patronatuarekin harremanetan jarri da BARREN, eta ondorengo erantzuna jaso dugu. "Igerilekuetako berdegunea soilik ireki arren, gune horretan zaintza jarri beharko genuke, jendea uretara sartzeko arriskua egongo litzatekeelako, bai eguraldi ona egiten duenean eta baita eguraldi txarra egiten duenean ere (sorosleen egutegia ez da murrizten eguraldiaren arabera). Horrez gain, beste arrazoi batzuk ere kontuan izaten ditugu berdegunea ez irekitzeko (Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren araudia, aldagelak erabilgarri izateak suposatzen duen garbiketa eta mantenu lanak...)".





San Frantzisko, 21 -Elgoibar - Tel.: 943 740 359  
[www.uzurioptika.com](http://www.uzurioptika.com)

Publierreportajea

## BIZITZA DIGITALA EKIDINEZINA DA

**XXI. mendean bizi gara. Mundu digitala da gurea; e-posta jasotzen dugu, azkeneko albisteak sakelako telefonoan irakurtzen ditugu, eskola eta lanean pantailaz inguraturik gaude eta asteburuan ere, sare sozialak ez ditugu alde batera uzten.**

Digitala da inguratzen gaituen mundua. Digitala da XXI. mendea. Datu batzuk:



18-29 urte arteko gazteen %50ek 9 ordu baino gehiago igarotzen dituzte pantaila digitalei begira.



Helduen %90ek baino gehiagok 2 ordu baino gehiago igarotzen dituzte egunean sakelako telefonoari begira.

Pantailen erabilera honek aldaketa batzuk eragiten ditu gure begi-sisteman. Gure begiek konstanteki esfortzu akomodatibo handia jasan beharra dute, hau da, enfoke sistema gehiegi erabiltzeagatik estresatu egiten ditugu begiak. Ikusmen azterketa egitera datozen gure bezeroen artean, geroz eta ohikoagoak dira sintoma hauek:



Nekea




Begi lehortasuna



Gorritzea

Sintoma hauek saihesteko teknologia berri bat sortu dute, pantailen erabilpena ardatz bezala hartuta, eta produktu desberdinak garatu dituzte begien neke mota honi aurre egiteko:

- **Eyezen:** Lente hauek begiaren gehiegizko esfortzua gutxitzeaz gain, pantailek igortzen duten argi urdina xurgatzen dute, begiak are gehiago babestuz.
- **Biofinity energys:** Merkatura irten berri diren lentillak dira, pantailen aurrean ordu luzez egoten den jendeak esfortzu gutxiago egin dezan.
- **Systane:** Gure begiaren hidratazio naturala hobeto mantentzen laguntzen duten tanta batzuk dira.



**Ez utzi zure bizitza-erritmoa gelditzen begiak nekatuta dituzulako! Hartu txanda Uzuri optikan eta azterteta okular baten bidez jakingo dugu zure begi-sistemak neke digitala daukan edo ez, eta hobeto egokitzen zaizun produktua gomendatuko dizugu.**

*Hartu txanda!  
Zure begiek eskertuko dute!*

## Uxue Alberdik jaso du Euskadi Literatura saria, haur eta gazte literatura atalean

Uxue Alberdi Estibaritzek (Elgoibar, 1984) Euskadi Literatura saria jaso du *Besarkada* lanagatik, euskarazko haur eta gazte literatura sailean. Kopla bidez idatzitako lana da eta hori ere nabarmendu du epaimahaiak. Epaimahaiakideek ondorengoak nabarmendu dituzte, Uxue Alberdiren lana sariatzeko: “Besarkada lanak azal eta mami biltzen du besarkada batek sortarazten duen zirrara. Kopla bidez agertzen du hori guztia Uxue Alberdik, kontraste-giroa sortuz. Koplen egitura klasikoa harago doa, ordea, alde kontraerrien arteko jokoak kode poetiko bilakatzen delako. Atmosferak, zentzuak eta zirrarak dira kode poetiko horren hizkuntza-baliabideak eta, honenbestez, pentsatzeko baino sentitzeko liburu baten aurrean gaudela esan dezakegu”.

18.000 euroko saria jaso du Alberdik, eta 4.000 euro gehiago jasoko lituzke lan saritua beste hizkuntza batean argitaratzen bada.



Uxue Alberdik gainera, beste elgoibartar batek ere irabazi zuen Euskadi Literatura Saria, birritan gainera. Iban Barrenetxea ilustratzaileak jaso zuen sari hau 2011n eta 2012an, Literatura-lanaren ilustrazioa atalean.

### ‘El florido pensil (niñas)’ antzezlanaren taularatuko dute gaur zortzi Herriko Antzokian

*El florido pensil (niñas)* lanak gerra-ondoko Espainiako hezkuntza sistemen ondorioak jasaten dituzten bost neskatoren egunerokoa kontatzen du. Gizartearen eta horren ideologia menderatzailearen isla zen eskola. Ideologia horrek Erdi Aroko patriarkaturik sakonena berreskuratuta eta azken ondorioetaraino ezartzea erabaki zuen. Emakumeak izan ziren ekintza moralizatzaile horren helburu; izan ere, ezkontza eta etxeko lanak egitea zen beren berezko bidea. Eta beren ibilbide profesionala, berriz, familia osatzea eta seme-alabak edukitzea. Horretan bat

zetozen ia guztiak, emakumeak zein gizonak: maistra, apaiza, gurasoak, moralistak, kupletistak, eleberrirak, idazleak, baita gimnasia-irakasleak ere. Eszena guztietan ikusiko da bi emakume mota baino ez zeudela: zintzoak eta besteak.

Hogei urte pasatu dira Tantaka teatroak *El Florido pensil* antzerkia estreinatu zuenetik, baina ordu hartan gizonen ikuspegitik kontatu zuten istorioa. Oraingoan emakumeak izango dira protagonistak.

20:30ean hasiko da antzerkia. Sarrerak aurrez erosi daitezke Kutxaren



bidez edo Kultur Etxean, eta bestela egunean bertan lehiatila.

### Euskararen Eguneko esaldi lehiaketa antolatu dute Elgoibarko Izarrak eta Gaztelekuak

Elgoibarko Izarrak eta Gaztelekuak euskararen eguneko esaldi lehiaketa antolatu dute hirugarren urtez, DBHko eta Batxilergoko ikasleentzako. Euskarari lotutako esaldiak sortu beharko dituzte ikasleek, baina esaldian ezingo da euskara hitza bera agertu. Lehiaketa irabazten duen esaldiarekin kamiseta bat prestatuko dute antolatzaileek, eta 13 eta 18 urte bitarteko nerabeen artean banatuko dute, doan. Irabazleak Elgoibarko dendetan gastatzeko ehun euroko erosketa txekia eskuratuko du. Parte hartzeko hainbat aukera daude: Whatsapp bidez: 628 170 330 telefonoan. Instagram bidez: @elgoibarkogaztelekuak. Twitter bidez: #365esaldi traola erabilia. Esaldiak bidaltzeko azken eguna urriaren 30a da.

## Elgoibarko artisauen azoka egingo dute bihar Maalako parkean



**E**lgoibarko artisau eta eskulan azoka antolatu du Udalak, biharko. Aurten Maalako parkean izango da, 10:30etik 14:00etara. Besteak beste, Bitxiak, margoak, xaboiak, ehunekin egindako lanak, luthier lanak eta bes-telako eskulanak izango dira ikusgai. Edizioa ixterako unean artisau hauek zeuden izena emanda: Amaia Erkizia (bitxiak), Irati Agirreazaldegia (bitxiak), Bitxibitxi (bitxiak), Xabier Isasti (egurra), Xarlem Creations (ehunak), Emi Nogales (margoak) eta Ana Mosacula (xaboiak).

## Ingelesezko mintzapraktika egitasmoa martxan da


Udal Liburutegiak ingelesa praktikatzeko mintzapraktika egitasmoa jarri du martxan aurten ere. Ingelesez hitz egiteari eta beste hizkuntza batean ideiak azaltzeari beldurra galtzea da egitasmoaren helburua. Hamabost lagunentzako lekua egongo da. Interesdunek, liburutegian bertan eman beharko dute izena, eta onarpenak, izen-ematearen arabera egingo dira.

## Odol emaileak omenduko dituzte

Deba Arroko odol emaileak omenduko dituzte bihar Eibarren, tartean Elgoibarko odol emaileak. Ondorengoak omenduko dituzte: 25 aldiz odola eman dutenak: Carmen Acuña, Josune Larreina, Joseba Osoro, Raul Romero, Jon Urbieta, Rosa Zubizarreta. 40 aldiz eman dutenak: Miragros Laca, Miren Lariz, Maite Loiola, Mari Carmen Mella. 50 aldiz eman dutenak: Constan Nuñez eta Manuel Quintana.

## Urriaren 28ra arte egongo da ikusgai historiaurreko tresnei buruzko erakusketa

*Historiaurrea: ehiza, artea eta erotismoa* izeneko erakusketa jarri du ikusgai Jose Julian Marquezek Kultur Etxean, eta hilaren 28ra arte egongo da zabalik. Duela bi urte egin zuen erakusketa estreinako, baina oraindik erakutsi gabeko tresna asko dituela-eta, aurten ere prestatu du erakusketa. Umeentzako tailerrak ere eskaini ditu Marquezek. Interesatuak asteleheneetik larunbatera, 18:30etik 20:30era izango dute erakusketa bisitatzeko aukera.



## Arreiturre Institutuko bi ikasle saritu dituzte Komiki Digitalen Lehiaketan



Bilboko Euskararen Etxeak antolatuta, Komiki Digitalen Lehiaketa egin dute aurten, laugarrenoz. Euskal Herriko ia 4.000 ikaslek hartu dute parte, eta bigarren saria eskuratu dute Gorka Mugerza Garcia eta Markel Sanchez Fernandez De Jauregi ikasle elgoibartarrek, LH 5. eta 6. mailako artean. Sare sozialetako pribatasunari buruzko lana aurkeztu zuten. Bilboko Euskararen Etxera bisitan joaten diren ikasleek hartzen dute parte Komiki Digitalen Lehiaketan. 2015eko iraila eta 2016ko ekaina bitartean 63 ikastetxetatik joandako 3.486 ikasleren bisita jaso zuten eta 1.354 lan aurkeztu ziren lehiaketarako.

## Ander Zulaikak seigarren egin du Hiru Haundiak mendi-lasterketan

**H**iru Haundiak proba jokatu zen zapatuan, Euskal Herriko mendi-lasterketen denboraldiko proba nagusietako bat, eta edizio honetan ere elgoibartar eta mendaroar ugarik parte hartu zuten. Lizarpe LMK taldeko Ander Zulaika mendarorarrak egin zuen gure ordezkarien artean denborarik onena. 12 ordu pasatxo behar izan zituen Zulaikak 100 kilometroko ibilbidea osatzeko. Abuztuan, Trail Valle de Tena 8K mendi-lasterketan podiuma egitetik zetorren mendarorarra eta sasoiko dagoela berretsi zuen zapatuan. (78 kilometro eta 6.800 metroko desnibel positiboko proba da Trail Valle de Tena mendi-lasterketa, eta 14:20:23ko denboran bukatu zuen Lizarpeko taldekideak. Hirugarren sailkatu zen).

Hiru Haundiak probarako 1.475 lagun zeuden aurten izena emanda eta



956k bukatu zuten proba (izena emandakoen %66k). Gizonezkoetan, Jokin Garai gailendu zen, 11:18ko denborarekin eta emakumezkoetan, Leire Martinez, 13:31ko denborarekin.

Proba bukatu zuten Elgoibarko eta Mendarokoen zerrenda:

- 6. Ander Zulaika (12:16)
- 19. Gorka de la Horra (13:11)
- 88. Mikel Gorriti (14:57)
- 100. Iñaki Etxabe (15:12)
- 206. Borja Rodriguez (16:49)
- 227. Arkaitz Irureta (17:07)
- 278. Aritz Arribillaga (17:36)
- 308. Julen Salaberria (17:56)
- 309. Mikel Arosa (17:56)
- 327. Angel Quintana (18:07)
- 426. Josu Mendikute (19:01)
- 581. Jose Luis Diez Revenga (20:17)
- 692. Tomas Peña (21:23)
- 703. Arantza Beristain (21:34)
- 704. Ekaitz Baskaran (21:34)
- 705. Modesto Cid (21:34)
- 846. Mikel Kortabitarte (23:06)
- 848. Edu Uribe (23:06).

## Atletismo jardunaldiarekin hasi da aurtengo Eskola Kirola egitasmoa



Elgoibarko Eskola Kirola Elkarteak atletismoarekin hasi zuen denboraldia joan zen zapatuan. Aurten ere kirol jarduera eskaintza ugaria egingo die herriko umeei Elgoibarko Eskola Kirola Elkarteak. Ikasturtean zehar hainbat kirol praktikatzeko aukera izango dute izena emanda dauden 397 haurrek (iaz 378 izan ziren). Maiatzaren 27ra bitartean beste hainbat kiroletan arituko dira aurre benjamin, benjamin eta alebin mailako umeak, besteak beste, atletismoa, eskubaloia, saskibaloia, izotz hockeya, esku pilota, futbola, herri kirolak eta igeriketa.

## Morura irteera antolatu du Morkaikok domekarako

Morkaiko mendizale elkarteak Morura irteera antolatu du domekarako, Ikastolako eta Herri Eskolako gurasoekin elkarlanean. 9:30ean elkartuko dira Kalegoen plazan, eta Saturio ingurutik egingo dute Morurako bidea. Bueltan ere Sigmara jaitsiko dira zuzenean, Idorbetik pasatu gabe. Elgoibarko ingurune ezezagunak ezagutzeko aukera eskaini nahi dute oraingoan. 11:00ak alderako aurreikusitako Morura iristea. Nahi duenak Idorbera autoz igo eta handik Morura joateko aukera ere izango du.

## Pala misto txapelketa datorren astean amaituko da

Pala misto txapelketa azken txanpan sartu da. Datorren astelehenean jokatuko dituzte final laurdenak eta eguaztenean izango dira finalerdiak. Partida horietatik irtingo dira bi bikote finalistak, eta final nagusia barixakuan jokatuko dute. Kalegoen plazan izango da norgehiagoka, 19:00etan.

## Eguenean hasiko dira Morkaikoren udazkeneko mendi emanaldiak

**U**dazkeneko Mendi Emanaldi Zikloaren egitaraua ezagutzera eman du Morkaiko mendi taldeak, eta aurten sei saio prestatu dituzte. Urriaren 27an, egunean, izango da lehenengoa eta abenduaren 1ean, azkena. Aurten ere programa "zabal, interesgarri eta erakargarria" osatzen saiatu direla azaldu dute, eta berrikuntzen artean, Bilboko Mendi Film Festibal entzutetsuak eskaintzen duen Mendi Tour ekitaldia ekarriko dute estreinakoz Elgoibarrera.

Lehenengo saioa Joseba Elustondo elgoibartarrak eta Jon Garatek eskainiko dute: *You'll never walk alone* hitzaldia. Emanaldi honetan bi sokalagunek hutsetik sortutako talde baten abentura, desbentura eta anekdotak ekarriko dituzte. Negu eta udaberrian zehar bizitako esperientzia desberdinen ondorioz sendotutako bikoteak Alpeetan egindako ekintzak azalduko ditu. 21:30ean izango da saioa, Lanbroa tabernan.



## Emaitzak

### FUTBOLA

Beti Gazte 3 – Haundi 4 (Pref.)  
 Ilintxa 1 – Elgoibar 2 (Ohorezko jub.)  
 Elgoibar 1 – Urki B 2 (Jub.)  
 Elgoibar 2 – Eibar 1 (Kad.)  
 Amaiak Bat 1 – Elgoibar 6 (Inf. Txiki.)  
 Elgoibar 3 – Anaitasuna 2 (Aleb.)  
 Elgoibar 5 – Zarautz 4 (Aleb.)

### ARETO FUTBOLA

Segorbe 5 – Concepto Egile 4

### ESKUBALOIA

Alcorta Elg. 25 – Beti Onak 29 (Sen. mut.)  
 Jarrilleras 22 – Lauko Elg. 20 (Sen. neska.)  
 Salento Elg. 24 – Ereintza 28 (Sen. mut.)  
 Tecnifuelle Elg. 21 – Ereintza 15 (Jub. neska.)  
 Bidasoa 23 – Urkunde Elg. 25 (Kad. mut.)  
 Dario Elg. 18 – Brakys 16 (Kad. neska.)  
 Legazpi 10 – Cometel Elg. 19 (Kad. neska.)  
 Bankoa Elg. 17 – Bidasoa 24 (Kad. mut.)  
 Aiala A 24 – Bacalaos Alcorta Elg. 12 (Inf. neska.)  
 Eibar 23 – Modeltek Elg. 12 (Inf. neska.)  
 Usurbil 27 – Murgil Elg. 32 (Inf. mut.)  
 Txarriduna Elg. 13 – Eibar A 35 (Inf. mut.)

## Agenda

### FUTBOLA (Mintxetan)

Zapata, 22  
 11:00 Elgoibar – Eibartarrak (Aleb.)  
 16:30 Elgoibar – Iksaberri (Erreg.)  
 18:30 Elgoibar – Mondragon (Jub.)  
 Domeka, 23  
 10:30 Elgoibar – Urki (Aleb.)

### ESKUBALOIA (Kiroldegian)

Zapata, 22  
 10:00 Modeltek Elg. – Ereintza A (Inf. neska.)  
 11:30 Bacalaos Elg. – Pulpo (Inf. neska.)  
 12:45 Murgil Elg. – Aloña (Inf. mut.)  
 17:45 Cometel Elg. – Egia (Kad. neska.)  
 19:30 Alcorta Elg. – Trapagaran (Sen. mut.)  
 Domeka, 23  
 10:00 Urkunde Elg. – Ereintza (Kad. mut.)  
 11:15 Beristain Elg. – Ereintza (Jub. mut.)  
 12:45 Lauko Elg. – Aloña (Sen. neska.)

## Idorbeko bizikleta igoerako errekorrak ondu dituzte Iker Eskibelek eta Maite Maiorak

Iker Eskibelek (Eskoriatza, 1993) irabazi du aurtengo San Pedroko txirindulari igoera, bere estreinako parte-hartzean. 13:20an igo zen Kalegoen plazatik Idorbekora, eta denbora horrekin segundo batean ondu du Iñigo Larizek 2002an ezarri zuen marka. Iñigo Larizek egin zuen bigarren 13:53ko denborarekin, azken metroetan Josu Uriarte markinarrari (13:54) aurrea hartuta.

Emakumezkoetan, Maite Maiorak aurrenekoz parte hartu zuen Idorbekora, eta garaipenaz gain, errekorra ezarri zuen 17:22 denborarekin. Lesio batetik



erabat sendatu gabe dagoela ezarri zuen, gainera, errekorra. Duela sei aste inguru oineko hirugarren metatarsoa hautsi zuen eta, besteak beste, igerian eta bizikletan ibiliz ari da osatzen. Lesio

horren ondorioz uko dio urriaren 29an Bragan (Portugal) jokatu den Munduko Trail Txapelketan parte hartzeari. Argazki gehiago [www.barren.eus](http://www.barren.eus) atarian.

**LANA.....**  
**Eskaerak**

Lurrak lixatu eta barnizatzen ditut. Tarima flotantea ere jartzen dut.  
☎ 632 253 315

Asteburuetan lan egiteko prest. Adinekoak edo umeak zainzen edo garbiketa lanak egiten. ☎ 646 821 678

Adinekoak zaintzeko edo baserrietan lan egiteko prest. Interno edo orduka. Erreferentzia onak. ☎ 686 077 316

Lanerako prest nago. Adinekoak zaintzen, etxeak eta lokalak garbitzen... ☎ 655 094 780

Ingelese hitz egiten ikasi nahi duzu irakasle natibo batekin? Astelehen edo asteazkenetan libre zaude 16:00etan? Eta ostegunetan 15:00etan?  
☎ 943 740 225 (Francesca)

Adinekoak eta umeak zaintzeko prest nago. Larunbat eta igandetan.  
☎ 642 381 844

Adinekoak orduka zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago.  
☎ 631 506 763

Pertsona arduratsua adinekoak zein umeak zaindu eta garbiketa lanak egiteko prest. ☎ 602 876 692

Geriatría laguntzailea adinekoak zaintzeko prest. Orduka.  
☎ 646 931 162

Adinekoak zaindu edo portalak garbitzeko prest nago. ☎ 638 338 816

Adinekoak zaintzeko prest nago. Asteburuetan. ☎ 660 290 237

Adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka ere bai. ☎ 631 931 030

Adinekoak zaindu, zerbitzari lanak edo garbiketarako egiteko prest nago. Edozein lan hartuko nuke. ☎ 637 074 529

Ingeles eskolak ematen dira, banaka edo talde txikietan, etxe-etxe. Ingeles tituludun irakaslea.  
☎ 680 319 002 / 943 744 062

Adinekoak edo gaixoak zaintzen egingo nuke lan. Asteburuetan.  
☎ 617 571 210

Adinekoak zainduko nituzke. Orduka. Formazioa eta esperientzia handia ditut.  
☎ 671 989 434

Umeak zein adinekoak zaintzeko, etxeko lanak egiteko edo portalak garbitzeko prest nago. 13:00etatik aurrera.  
☎ 943 743 638

Pertsona nagusiak zaintzeko, garbiketa lanetarako edo baserriko lanak egiteko prest. ☎ 634 830 423

Tituludun irakasleak ingeles eskolak ematen ditu. Talde txikiak.  
☎ 680 319 002/943 744 062

Etxeak garbitzen egingo nuke lan.  
☎ 637 102 725 / 943 744 033

Sukaldari laguntzaile lanetarako, adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago.  
☎ 677 259 560

Geriatría laguntzailea adinekoak zaintzeko prest. Gavez, ospitalean zein etxean.  
☎ 660 511 781/943 742 330

Nagusiak zein umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago.  
☎ 632 928 108

Mendaroko gaztea LHko haurrei eskola partikularrak emateko prest.  
☎ 646 738 095

Adinekoak zainduko nituzke. Garbiketa lanak ere egiten ditut. Goizez, orduka.  
☎ 647 100 572

Adinekoak zainduko nituzke, orduka. Formazioa eta diplomak dauzkat.  
☎ 671 989 434

Portalak eta elkarteak garbitzeko prest nago.  
☎ 617 571 210

**Eskaintzak**

Artezte makinetan esperientziadun ofiziala behar da. Makina prestatzeko ohiturakin. Pieza unitarioak. Lanpostu egonkorra. Bidali CV helbide honetara: 177 posta kutxatila. 20600 Eibar, edo [rectificadorexteriores@hotmail.com](mailto:rectificadorexteriores@hotmail.com)

**ETXEBIZITZAK.....**  
**Alokairua**

Bi logelako etxebizitza alokairuan hartuko nuke. ☎ 631 098 995

Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ 631 252 750

Logela bat hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ 655 711 200

Bi edo hiru logelako etxea hartuko nuke alokairuan. ☎ 688 723 121

Hiru logelako etxebizitza hartuko nuke alokairuan. ☎ 620 712 478

**GARAJEAK.....**

Garaje itxia salgai Mendaron, Herriko Enparantzan. ☎ 648 012 181

**OSPAKIZUNAK.....**

80 urte egingo dituztenen bazkaria urriaren 29an Txaridunan. 50 euro sartu, Laboral Kutxako kontu honetan: ES61 3035 0007 2100 71132989. Azken eguna: urriak 26.

**BESTELAKOAK.....**

Patinetea galdu dut, Micro markakoa, morea. Maala eta Santa Ana kale artean. ☎ 676 662 017



Txakur batentzako gordelekua behar du. Ahal bada argi naturala saritzen den leku bat. Hilean 100 euro ordaintzeko prest gaude.  
☎ 695 751 985

Karakate mikologia elkarteko nire bazkideza partea traspasatzeko prest nago.  
☎ 688 605 253



**P. M. Urruzuno kalea, 6 behea - Elgoibar**  
☎ 943 743 140 - [rosapf@telefonica.net](mailto:rosapf@telefonica.net)



**Gure komunitatean urteak dira ez dugula fatxada berritzeko obrarik egin, bileretan sekula ez dugulako gai horren inguruan erabakirik hartzen eta hurrengo batean aztertzeko lagatzen dugulako beti. Niri iruditzen zait berritzeko premia duela fatxadak, zati batean oso hondatua dagoelako. Jakin nahiko nuke nola landu behar dugun gai hau batzarretan erabakiren bat hartu ahal izateko.**

Mantendu lanak egitea komeni denetan administratzaileak presidenteari eskatu behar dio obrak lehenbailehen has-teko eta hark bizilagunei, gerta daitekeelako mantenu lanak ez egiteagatik fatxadako zatiren bat-edo jaustea. Obra egin beharraz ohartarazi arren, presidenteak kasurik egingo ez balu, bera izango litzateke gerta daitekeenaren erantzule, beti ere, jakina, ohartarazpen hori egon dela baieztatuko balitz eta presidenteak obra hori eginarazteko jarraitu beharreko pausoak eman ez dituela frogatuko balitz. Obra atzeratzea bizilagunek eurek erabaki badute batzarrean, bizilagunak izango dira gerta daitekeenaren erantzule.

**AHOLKUA: Legeak dio ezinbestean egin behar diren obren kasuan ez dela batzarren onespentik behar aurrera egiteko. Presidenteak erabakiko du egin edo ez. Hori bai, batzarrean aztertu beharko dira aurrekontu ezberdinak eta haiek aukeratuko dute zein aukeratu. Obra hori egitea eskatzen duena Administrazioa denean, batzarrak ez du zeresanik izango gaian.**

**ROSA M<sup>a</sup> PINTADO:** Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749





Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENeke bulegora, edo [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) e-postara bidali.



Zorionak, **Danel**, eta bersarkada handi bat etxeko guztion partez. Segi horrelako mutil jatorra izaten.




Zorionak, **Garazi**, zure urtebetetzean. Muxu handi-handi bat Elur, Unai eta familiakoen partez.




Zorionak, **Nahia**! Bihar 6 urte gure etxeko txikiak! Mila muxu maite zaitugun denon partez.



**51ko kintoen bazkaria.** Aurten 65 urte beteko dituzten elgoibartarrek bazkaria egingo dute azaroaren 12an, Karakate jategian. 12:30ean batuko dira Maialako eliza kanpoan. 55 euro ordaindu behar dira, Laboral Kutxako kontu honetan, azaroaren 9rako: ES73 3035 0007 28 0071133012



Zorionak, **Xabi**, zure bigarren urtebetetzean, Ibon, Ander eta Mike len partez.



Zorionak, **Gorka**, astelehenean 5 urte beteko dituzulako. Etxeko partez, eta bereziki Maialen partez.



Zorionak, **Maialen**, urriaren 19an 17 urte bete zenituelako.. Zure amets guztiak bete daitez, muxu bat!

Erretratu bakarrek agurra: 4,50€. Argazki bikoitza: 7€.  
Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€  
ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK  
Erretratu bakarrek agurra: 3,50€. Argazki bikoitza: 6€.  
Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€




Zorionak, **Gorka**! Urte bat! Oso ondo pasa genuen! Etxeko eta bereziki aitaita-amonen partez, mila muxu.



Zorionak, **Ayele**, astelehenean 9 urte egingo dituzulako. Aiton-amonen eta izekoren partez. Muxu bat.



Zorionak, **Xuban**, asteartean 7 urte beteko dituzulako.. Amatxo, aitatxo eta Jaikesen partez.



Hain txiki eta hain azkar! Zorionak, **Izar**!



Zorionak, **Goiuri**, zapatuan 6 urte bete zenituelako. Oso ondo pasa genuen. Muxuak familiakoen partez.



Zorionak, **Duna eta Edith**! Zenbat barre ekarri diguzuen. Patxo asko familia osoaren partez!

## SALENTO

### BAR PIZZERIA

Pedro Migel Umuzuno, 10 - 20870 Elgoibar  
salento\_elgoibar@hotmail.com  
Facebook/Salento de Carlo

# BERRIA!

Etxez etxeko banaketa aste guztian zehar

**BANAKETAREN ORDUTEGIA:**

**Asteleheneetik ostegunera:**  
20:00etatik 23:00etara

**Ostiral eta larunbatak:**  
20:00etatik 23:30era

**Igandetan:**  
13:00etatik 16:00etara  
20:00etatik 23:00etara

**GURE ESKAINTZATIK NAHI DUZUNA ESKATU ETA ETXERA ERAMANGO DIZUGU.**

943 740 196

salento de carlo

Eguneko menua: asteleheneetik ostiralera

# A. Garate

Era guztietako igeltsaritza lanak egiten aditua

angelmgarate@gmail.com

Santa Ana kalea, 28 behea - 2. zkia - 20870 Elgoibar

## 610 226 651

## 22 ZAPATUA

**10:30** Elgoibarko eskulanean erakusketa. Lekuederren.

**11:30** Udazken festa. Elgoibarko Izarrak antolatuta, Kalegoen plazan.

**17:00** Emakume migratuen kulturarteko topaketa. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

**20:00** Kontzertua. La cotarra koral-abesbatza. San Bartolome parrokiaren 300. urteurrenaren barruan. San Bartolome Parrokian, meza nagusian eskainiko dute kontzertua.

## 23 DOMEKA

**10:30** Antzerkia: 'Moby Dick'. Gorkada teatroak taularatuko du, Herriko Antzokian.

**11:00** Perretxiko erakusketa. Karakate mikologia elkarteak antolatuta, Kultur Etxeko sotoan.

## 25 MARTITZENA

**17:00** Ipuin kontalaria. Arabiar Bitxikeriak. Gotzon Garate Udal liburutegian.

## 26 EGUAZTENA

**19:00** Hitzaldia: Onkologia integratzailea. Juan Serrano Gandía biokimikariak eskainiko du. Meka institutuan. Doan izango da.

## 27 EGUENA

**21:30** 'Alpeetara egindako eskalada bidaia'. Joseba Elustondo eta J. Garate izango dira hizlariak. Morkaikok antolatuta, Lanbroa tabernan.

## 28 BARIXAKUA

**20:30** Antzerkia: 'El florido pensil (niñas)'. Tanttaka produkzioak aurkeztuta, Herriko Antzokian.

**Botika ordutegiak**  
09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

### Guardiak

**09:00 - 22:00**

21 Barixakua IBAÑEZ  
22 Zapatua GARITAONANDIA  
23 Domeka GARITAONANDIA  
24 Astelehena ETXEBERRIA  
25 Martitzena FERNANDEZ  
26 Eguaztena YUDEGO  
27 Eguena FERNANDEZ  
28 Barixakua BARRENETXEA

**22:00 - 00:00**

Astelehenetik domekara  
ETXEBERRIA (Elgoibar) - Santa Ana, 1  
Tel.: 943 740 140

**00:00 - 09:00**

IRAUNDEGI (Eibar) - Fermin Calbeton, 19  
Tel.: 943 201 110

\* Fernandez: Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro)

Tel.: 943 756 142

\* Ibañez: Rekalde, 1 (Soraluze)

Tel.: 943 751 638

\* Oruesagasti: Kalebarren, 9 (Soraluze) Tel.: 943 751 384



**Flexiahorro**  
**%0,55**

### ERRENTAGARRITASUN ZIURTATUA 2016KO BIGARREN SEIHILEKORAKO

#### ERRENTAGARRITASUN ZIURTATUA SEIHILEKO NATURALEN ARABERA

#### LIKIDEZIA: HASIERATIK.

Lehen urtean, ateratako zenbatekoaren %2ko penalizazioa aplikatuko da.

#### IRAUPENA:

mugagabea, bezeroak inbertitutakoa atera, edo hil arte.

FLEXIAHORRO honako konpainia honen BIZI-ASEGURU ETA AURREZKI bat da: CNP Partners de Seguros y Reaseguros, S.A. Grupo CNP Assurances-koa; Standard & Poor's-en, A ratinga du, akzioen %60tik gora enpresa publikoena edo Frantziako Estatuarena izanda. Bankoa bitartekaria da.



10.000 euroko Flexiahorro bat kontratatzen baduzu, honako hau operatuko ditzugu: Tupperware markoi cepetako 10 ONTZI, janaria gordetzeko eta eramateko: 1 litroko 1 ontzi, 1,5 litroko 1 ontzi, 2 litroko 1 ontzi, 600 ml-ko 3 ontzi eta 300 ml-ko 4 ontzi.

Informazio gehiago: ELGOIBAR.  
San Francisco, 1. Tel: 943 74 40 72

**bankoa**  
CRÉDIT AGRICOLE



## Zinea

**'Gernika'**  
(Herriko antzokian)

21 Barixakua, 21:30

22 Zapatua, 19:00 / 22:15 (VOS)

23 Domeka 19:00

24 astelehena 21:30

**'Re-animator'**  
(Gaztetxean, sutegixan)

21 Barixakua, 21:30

**'Martyrs'**  
(Gaztetxean, sutegixan)

28 Barixakua, 21:30

## Irailean hildakoak

- . **Txomin Mendez Rodriguez** 75 urte, irailak 1
- . **Rosario Gandiaga Gainza** 89 urte, irailak 5
- . **Juan Rodriguez Soria** 60 urte, irailak 6
- . **Corona Parada Perez** 89 urte, irailak 7
- . **Jesus Ansola Arana** 78 urte, irailak 12

- . **Javier Dominguez Osorio** 82 urte, irailak 13
- . **Maria Mercedes Garcia-Abad Perez** 61 urte, irailak 13
- . **Ignacio Elorza Ansola "Etxabe"** 77 urte, irailak 14
- . **Juana Sanchez Perez** 77 urte, irailak 19
- . **Consuelo Garcia Isasti** 72 urte, irailak 26

**Florencio Gorriti Agirre**

2016ko urriaren 6an hil zen, 82 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



## ETXEBERRIA tanatorioa

Hileta zerbitzua osoa eta 24 ordukoa

**KUTXAK, TRASLADOAK ETA KOROAK.**  
**NORBANAKOEI ETA KONPAINIEI ZUZENDURIKO ZERBITZUAK.**  
**ERIETXE ZENTRUETAN ZERBITZUAK**


Santa Klara, 14 - 20870 ELGOIBAR

Telefonoak:

943 741 327 (24 orduz)

Sakelekoak: 635 756 295 / 629 635 203

[www.funerariaetxeberria.com](http://www.funerariaetxeberria.com)



Manu Sanchez



### Unai Villena



Harro zenioen "filtrorik gabe" hitz egiten zenuela, itzulingururik gabe eta zuzen, uneoro pentsatzen zenuena pentsatzen zenuen bezala esanez. Eta, bai, hala zen. Baina filtrorik gabe hitz egiten ez genuenok ez genizun esan, bakarka pentsatu eta zu ez zeudenean elkarren artean erruz komentatu genuen arren, hari meharra dagoela zuzena eta desatsegina izatearen artean, eta zuk maizegi iragaten zenuela hura. Zintzoa zinen uste harroan, baldarra eta lotsabakoa zinen; edo, filtrorik gabe, azkar eta zakar esanda: ahobero nazkagarri kargante hutsa zinen; txaplata jasangaitza! Guretzat hobe izango zen zuk filtroarekin hitz egin bazenu, edo gutxiago hitz egin bazenu, edo ez bazenu deus hitz egin. Gehienetan, ez zitzaigun zipitzik inporta-eta esaten zenuena. Horrexegatik deitzen genizun "infiltratua" atzetik, gu gogaitzeaz aparte, ez baikenekien zer kristo egiten zenuen han gurekin. Zu ez aguantatzearren utzi genion askok elkarteko batzarretara joateari.

*'Zintzoa zinen uste harroan, baldarra eta lotsabakoa; edo, filtrorik gabe, azkar eta zakar esanda: ahobero nazkagarri kargante hutsa zinen'*

# Gida komertziala



BARREN astekaria 2017ko Elgoibarko eta Mendaroko Gida Komertziala prestatzen ari da, Elgoibarko eta Mendaroko Udalen babesarekin. Lan hori egiteko Leire Alberdi komertziala kontratatatu dugu, eta bera ibiliko da lantegi, denda eta tabernetan gida komertziala aurkezten. Leirek berak eman dizkigu gidaren azalpenak.



## LEIRE ALBERDI KOMERTZIALA

### ◆ 2017ko Gida Komertziala kaleratuko du BARRENEK.

Bai. Azken Gida Komertziala 2011n argitaratu genuen eta hango datuak zahartuta daude. Elgoibarko eta Mendaroko komertzio eta jardueren datuak berritzeko beharra ikusi dugu. Gida honetan, gainera, pauso bat harago joan nahi izan dugu, eta paperean ez ezik, [www.barren.eus](http://www.barren.eus) webgunean eta Elgoibarko eta Mendaroko udalen webguneetan ere eskuragarri jarriko dugu gida. Euskarri digitalerako gidak uneoro berriak eta eguneratzeko aukera emango digu, eta modu horretan beti izango dugu datu basea berriak.

### ◆ Zein informazio agertuko da Gida Komertzial horretan?

Elgoibarko eta Mendaroko jarduera ekonomiko guztia jaso nahi dugu. Hau da, industri-enpresak, komertzioak, ostalaritza, eta baita era guztietako elkarteak ere. Horrez gain, autonomo moduan lan egiten dutenen kontaktuak ere argitaratu nahi ditugu. Horretarako ahoz ahoko informazioa behar dugu: batek ezagutzen duela autonomo moduan lan egiten duen pintore, diseinatzaile, jostun edo igeltsero

bat, esate baterako, bada, informazio hori guri helaraztea eskertuko genioke, gidan jaso ahal izateko.

### ◆ Gidan agertzeagatik ordaindu egin behar al da?

Gidan agertzea doan izango da, baina ordainuz gero, norberaren enpresa nabarmentzeko aukerak ere izango dira. Horretarako hainbat proposamen lantzen ari gara, neurri eta prezio desberdinetan. Udalek egitasmoa babestu duten arren, guretzako garrantzitsua da enpresen publizitatea egitea gida komertzialean. Hori dela eta, publizitatea kontratatzeagatik eskaintza bereziki onuragarriak izango dituzte bezeroek.

### ◆ Elgoibarko eta Mendaroko Udalen babesa jaso duzue.

Bai, bi udalek agertu dute interesa eta eskerrak eman nahi dizkiegu. Jarduera ekonomiko guztia jasotzen duen datu basea eguneratua izatea oso interesgarria da udalentzat, eta lana amaitzen dugunean haien esku utziko ditugu datu baseak.

### ◆ Zein da Gida Komertziala egiteko jarraituko duzuen lan-plana?

Lehenik eta behin datu-basea egune-



rakotuko dugu. Azken gidatik eta gure datu-basearen informazioak abiatuta osatu dugu datu-basearen lehen zirriborroa, eta orain datuak egiaztatzen ari gara. Bana-bana egiaztatuko ditugu datu guztiak: enpresa berriak gehitzeko, itxi diren negozioak kentzeko edota datuak aldatzeko. Nabarmentzekoa da lan hori egiten ari garen enpresetan jaso dugun tratua. Behin hori eginda dagoenean, lan komertziala hasiko dugu. Azkenik, datuak gida digitalera igoko ditugu eta papereko gida maketatuko dugu. Ondo bidean, urtarilean argitaratuko dugu gida.

### ◆ Gidan agertu nahi duenak zer egin behar du?

BARRENEkin jarri behar du harremanetan, [gida@elgoibarkoizarra.eus](mailto:gida@elgoibarkoizarra.eus) helbidera idatzi, edo ondorengo telefonoetara deitu dezake: 644 765 640 / 943 743 704



[gida@elgoibarkoizarra.eus](mailto:gida@elgoibarkoizarra.eus)  
644 765 640 / 943 743 704

# Merkatu Plazako saltzaileek antolatuta

2016/10/28  
ostirala

18:00 - 19:00  
Txoborro MAGOA

19:00 - 20:00  
Txokolatada

